

DIRU SARRERAK

Gure diru sarrerak aktiboen salmentatik lortuko ditugu, hain zuzen ere, gure ingurukoak diren produktuen salmentetatik. Dena den, zerbitzuak ere eskainiko ditugu, adibidez: sukaldaritzako ikastaroen eskaintza eta jatetxeko zerbitzua.

Gure bezeroa prest dago ohiko merkatu edo jatetxeekin alderatuta zerbait gehiago ordaintzeko. Izan ere, guk eskainitakoa kalitatezkoa da eta bilatzen duen gauza bakarra ez da lehengaien prezioa ahalik eta txikiena izatea.

Gure proiektua finantzatzeko beharrezkoa den dirua mailegu bidez eta jabeen ekarpenen bidez lortuko dugu. Hau da, %40 inguru mailegu bidez lortuko dugu eta %60 inguru jabeen ekarpenen bidez.

Sortuko dugun enpresaren hasierako inbertsioa lokal, altzairu, tresneria eta langileek osatuko dute, gure enpresaren oinarria osatuz. Ondoren, egunerokotasunean salduko eta eskainiko ditugun lehengaien salerosketa antolatu beharko dugu.

Hasierako inbertsioa oso handia izango ez den arren, enpresak aurrera egin ahala gastu gehiago izango ditu. Esate baterako, lokal berrien alokairua, lehengaien erosketa edo langile berrien kontratazioa.

